

## Gizarte Ekimeneko ikastetxeak

**ELA, STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuok aste honetarako deitutako lehen greba egunak jarraipen zabala izan du aurreko deialdien oso antzekoa**

**Patronalei eta Hezkuntza Sailari gatazkari irtenbidea emateko neurriak har ditzatela eskatzen diegu, langileen aldarrikapenei tajuzko erantzunak eman eta akordioak erdiestea ahalbideratuz**

Azken bi ikasturtetan sektorean gauzatu den 22. greba eguna da gaurkoa eta aurreko greba egunekin gertatu den bezala, gaur ere, izan duen babes oso zabala izan da, aurrekoen antzekoa. Gaurko Bilboko manifestazioan 4.000 langile inguru elkartu gara, greben helburu diren aldarrikapenekiko langileen atxekipenaren eta ikastetxeetan bizi dugun egoera nahigabearen erakusgarri.

Izan ere, sektore honetako langileok 10 urte daramatzagu gure lan hitzarmena berritu gabe, 10 urte soldata izoztuta, gure lan kargak gero eta handiagoak dira, eta jaiotze tasaren jaitziera medio lanpostu galera garrantzitsu bat aurreikusten da datozen urteetarako. Langile kidego batzuk (hezkuntza-laguntzako espezialistak eta haur-hezkuntzako lehen zikloko langileak), feminizatuena direnak, lan baldintza erabat prekarioak dituzte, DBH eta 2-DBHko irakasleak parekatzea egiteke dago oraindik; eta beharrezkoa da, halaber, Lanbide Heziketa gehiago arautzea.

Gatazkari irtenbidea emateko ardura eta aukera duten hezkuntza sailak eta patronalek inolako fundamenturik gabe behin eta berriro diotenaren kontra, grebaren helburuak argiak eta aski ezagunak dira, sektore honetako langileen lan baldintzen berreskurapena eta hotzekuntza alegia. Hobekuntza hauek gure ikastetxeetan eskeintzen den eta gure ikasleek jasotzen duten hezkuntza kalitatean eragin zuzena dutela konbentzita baikaude.

Urtarrileko 8 greba egunen ostean eta martxoko greba egunen aurretik sindikatuok Kristau Eskola, sektoreko patronal nagusiarekin, izandako aldebiko bileretan, adostasunak erdiesteko aukera eman zezaketen zenbait planteamendu egiteko prest agertu zen patronala. Tamalez, eta zergatiak ezagutzen ez badigutu ere, patronalak atzera pauso nabariak eman ditu, eta azkeneko mahai negoziatzailek ekarritako eduki eta planteamenduek adostasunak erdiestea zailtzen dute.

Proposamen hau definitibo eta behin betiko gisa aurkeztu arren, sindikatuok negoziaketara erabat irekita jarraitzen dugu, patronalak akordio puntuak non dauden badaki, idatziz ere helarazi diogun dokumentu batean jasotzen den bezala, eta beraz planteamendu horietan sakontzeko eskatzen diogu.

Hezkuntza sailak ere ardura dauka sektore honetako langileen lan baldintzekiko eta eskaintzen den hezkuntza kalitatearekiko, gatazkaren irtenbidean inplikatu eta ardura hau bere gain hartzea eskatzen diogu beraz, ardura hori bere gainetik kentzeko saikerak albo batera utziz behingoz. Gatazkaren irtenbidea ez du zerbitzu minimoen handitzeak ekarriko, ez eta bere inplikazioa debideratzeko asmoz gatazka lan sailera bideratzeko saiakerak ere.

Langileen eskaerei erantzunez gatazka bideratzeko ardura patronal eta hezkuntza sailak dute, eta horregatik, ELA, STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuok bai patronalei eta bai Hezkuntza sailari eskatzen diegu bakoitzak dagokien ardura eta erantzunkizuna bere gain hartu eta gatazka honi irtenbidea emateko neurriak har ditzatela, langileen aldarrikapenei tajuzko erantzunak eman eta akordioak erdiestea ahalbideratuko duten planteamenduak eginez.

Aldi berean, Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako langileak aste honetako greba egunak babestera eta antolatu ditugun elkarretaratze eta manifestazioetan parte hartzera animatzen ditugu.

Euskal Herrian 2019ko apirilak 1ean.



## **Hitzarmen berri baterako aldarrikapen nagusiak**

### **Enplegua:**

Akordio bat, enpleguari eusteko eta gelak balizko ixtearen eraginpeko pertsonala birkokatzeke.

### **Soldatak:**

Eroste-ahalmena berreskuratzea.

1-DBHko eta 2-DBHko irakasleen soldatak parekatzea.

### **Lanaldia eta lan-kargak:**

Irakasleen kasuan, ordu osagarriak erreserbatzea eskolak prestatzeko eta ikasleen jarraipena egiteko, zein urtean dedikazio ez presentzialeko 70 orduren aitortza.

Administrazio eta Zerbitzuetako personalarentzat, lanaldia murriztea.

Lanbide Heziketan lanaldiaren banaketa irregularra adostea.

### **Bereziki prekarizatuen eta feminizatuen dauden kidegoen lan-baldintzak hobetzea.**

*Hezkuntza-laguntzako espezialistak:* haien lana hezkuntza-izaerakotzat hartzea, ordu osagarriak ematea lana prestatzeko eta ikasleen jarraipena egiteko, zein lanaldia modu erregularrean banatzea irailaren 1etik ekainaren 30era arte

*Haur-hezkuntzako lehen zikloko pertsonala:* haien lana hezkuntza-izaerakotzat hartzea, lanaldia murriztea, ordu osagarriak ematea lana prestatzeko eta ikasleen jarraipena egiteko.



## Principales reivindicaciones para el nuevo convenio

### Empleo:

Acuerdo de mantenimiento de empleo y de recolocación del personal afectado por el eventual cierre de aulas.

### Salarios:

Recuperación del poder adquisitivo.

Equiparación salarial del profesorado de 1º y 2º de la ESO.

### Jornada y cargas de trabajo:

En cuanto al profesorado, reserva de horas complementarias para la preparación de las clases y para el seguimiento del alumnado, así como un reconocimiento de 70 horas de dedicación no presencial al año.

Respecto al personal de Administración y Servicios, reducción de jornada.

En Formación Profesional, llegar a un acuerdo sobre la distribución irregular de la jornada.

### Mejora de las condiciones de trabajo de colectivos especialmente precarizados y feminizados.

*Especialistas de apoyo educativo:* reconocimiento del carácter educativo de su labor, horas complementarias para la preparación de las tareas y para el seguimiento del alumnado, así como una distribución regular de la jornada desde el 1 de setiembre hasta el 30 de junio.

*Personal de primer ciclo de Educación Infantil:* reconocimiento del carácter educativo de su labor, reducción de jornada, horas complementarias para la preparación de las tareas y para el seguimiento del alumnado.